

SEGMENTUA

Segmentuari dagokionean, gure bezeroa objektiboa identifikatzeko beharra ikusi dugu. Horregatik, zentratu gara gure produktua enfokatzeko adin guztietako pertsonentzat, teknologiaren erabilpenari buruzko jakintza handirik izanda gabe ere: Produktu teknologikoa izanagatik, erraz ulertzen da *Xchanger*-en funtzionamendua. Bestalde, *on-line* dendan erosteko ez dute arazorik izango gure webgunearen diseinu optimoa dela eta.

Gure bezeroak nagusiki 14-50 urteko gizon-emakumeak izango dira, adin honetako pertsonak baitira gailu elektronikoetan interes handiena dutenak. Batzuetan, konturatu gabe, bateriarik gabe ateratzen gara kalera eta beraz, produktu honek arazo horri aurre egingo dio. Kontuan izan behar da ere, kontsumitzaileek ez dituztela diru sarrera altuak izan behar, edozein pertsonak erosi ahal baitu teknologia berritzaile hau. Ez dago gizarte sektore konkretu bati zuzenduta: hain da erabilgarria, eraginkorra eta erabilerraza, edonori zerbitzu dakiokela. Produktu honek, erosotasunean eta sinpletasunaren oztopoak apurtzeaz gain, larrialdiei aurre egiten ere lagun diezazuke.

Smartphone-en sartzeko tasak gora egiten jarraitzen du Espainian, merkatu-kuotaren % 92ra iritsiz eta Europako batez bestekoa gaindituz. Telefono adimendunak gure eguneroko ezinbesteko tresna bihurtu dira, Global Consumer Survey 2017 txostenetik ondoriozta daitekeenez bezala. Txosten horretan, inkestak % 94k adierazi dute azken 24 orduetan erabili dutela smartphonea.

Bestalde, gailu mugikorren bateriak, hala nola telefonoak eta tabletak, eztabaida gehien sortzen duten osagaietako bat dira. Izan ere, horiek dira energia hornitzeko arduradunak, eta, beraz, haien kargaren eta funtzionamendu onaren menpe dago neurri handi batean. Battery University-ren azterlan batek jakinarazi duen bezala, bateriei buruz bildutako datuen arabera, 300 eta 500 karga-ziklo bitarteko balio-bizitza dute.

Horregatik, era batera edo bestera, horrek adierazten du *Xchanger*-ak merkatuan sartzeko ez duela zailtasunik izango, kontuan izanda mugikorraren erabilera izugarrikoa dela. Horrek, muga asko zapaltzen lagunduko digu. Gainera, karga tentsio gutxiagoa eta seguruagoa eskaintzean, baterien bizitza erabilgarria zaintzen ari gara eta horrek gure gailuarena zabaltzen laguntzen digu ere, gehiago iraunaraziz. Gure enpresan ziur gaude faktore horiek gure produktuarekiko interesa areagotuko dutela herritarren artean, eta, era berean, igoera esponentziala eragingo duela gure salmentetan. Horrek gure enpresari onura ekar diezazkioke, jende askori erabilgarri egin dakiokelako.